

PEDAGOGO PROFESIONALAK
sarea eraikitzen / construyendo red

DATOS DE LA REUNIÓN/BILERAREN DATUAK

FECHA/DATA: 15.03.2014 /2014.03.15

ORDUA/HORA: 10.30 – 13.30

ASISTENTES/BERTARATUAK

Sendoa Gómez

Ainara Itxaso

Gorka Gonzalez

Mertxe Gordillo

Eli Enciso

Saioa Polo

Mamen Rasero

Vanesa Cuesta


Leyre Martinez

Nerea Fernández

Idoia Apaolaza

Bileraren laburpena /Resumen de la Reunión

- Egunean landuko diren gaien irakurketa
- ESTATUTUAK
- Estatutuen gaia lantzen hasi gara, gai honek sesio guztia hartuko du.Eguneko gai zerrenda guztiz anbiziosoa zela ondorioztatzen dugu, eta landu gabe geratu diren gaiak hurrengo lan bilerarako utzi ditugu.
- Haserako bi iradokizunekin abiatzen gara. “ *Asociación Profesional Colegial de Pedagogos Iniciativa*” gure interesei gehiago hurbiltzen delako eta zati handi batean gure nahiak biltzen dituelako Aukeratu dugun proposamenaren aspektu desberdinak aztertu, analizatu, eta eztabaidatzera igaro gara. Lan hau dela eta, estatutuen proposamen behin behinekoa eratzten dugu hurrengo bileran aurkeztua izango dena bere onarpenerako. Betebehar honetaz, “Estatutu” taldea arduratuko da.
- Burututako lanak, hurrengo pausuetarako bidea irekitzen du, aurrerago deskribatuak izango direnak, dauden taldeentzat.Eginkizun berri hauek aurrez eraturako talderen batek ezin badu burutu, arduradun berri bat izendatzen da..
- Bazkideen urteko kuota 120E izatea erabakitzen da. Gai honi lotuta, kuota murriztuak ezartzea baloratzen dugu egoera hauen aurrean; langabezia egoera, ikasleak edota familia ugariko kasuetan, Murrizketen portzentaia egoera ematen denean erabakiko da..
- Interesgarria iruditzen zaigu elkartearen bitzta Historia idatzi eta biltzen joatea: Idoia Apaolaza bolondres agertzen da
- Estatutuen gainbegiratzea amaitutakoan Elkarteko Gobernu Batzorderako hautesleen zerrenda egiteari ekiten diogu.Organo hau estamentu hauek osatzen dute: Lehendakaritza, Lehendakari ordea, Idazkaria ,



Diruzaina eta Ahotsak. Ahotsen pertsonen kopura irekia da, izan ere, uste dugu egon daitezkeela partehartu nahiko luketen pertsonak, bai ahots moduan edo bai beste kargu batean. Ildo honi jarraituz, deialdi bat luzatzen dugu Batzarreko kide izan nahi dutenentzat, jakinarazi dezaten eta beharrezkoa dena eraldatzeko. Gainera, behin-behineko Komunikazio ahotsaren figura sortzea erabaki genuen, komunikazio gaiak sortzen duen lan eta inplikazioa dela eta. Bozketak burutzen dugu, eskua altxatuz bildu garen artean, jarraian emaitza aurkezten dugu. Hasi aurretik aipatu, adostuta geratzen dela Gobernu Batzarreko kide izan nahi duen orok, atak irekita dauzkala edo hautesle berriak aurkeztu nahi balituzke ere.

- Lehendakaritza: **Mertxe Gordillo.**
- Lehendakari ordea: **Idoia Apaolaza.**
- Idazkaria: **Gorka Gonzalez.**
- Diruzaina: **Vanesa Cuesta.**
- Ahotsak: **Ainara Itxaso.**
Eli Enciso.
Mamen Rasero.
Leyre Martinez.
Nerea Fernández.
Komunikazioa: Sendoa Gómez

- Jardunaldia amaitu aurretik, logotipoari denbora bat eskaintzen diogu. Komunikazio taldetik logo garatuago bat edukitzearen beharra ikusten zutela adierazi zuten, gaur egunean erabiltzen ari garen logoarekin alderatuz. Proposamenak egon ziren; diseinu eskolekin harremanetan jartzeko, facebook.eko gure jarraitzeilei deialdi bat luzatzeko (agian diseinatzaile apartekoren bate egongo balitz ere) edo lagun edo ezagunei laguntza eskatzea ere baloratu zen.

ZAI GERATZEN DIREN GAIK:

ESTATUTUEN TALDEA

- Behin behineko testua erregistratu aurretik, birbegiratzera bidali, funtsean, Elkartetik Elkargo izatera igarotzeko orduan huts egiteko edo akatsak saihestu aldera.
- 3.artikuluari dagokionez, elkarteak onartuko dituen tituluen definizioa egokien bilduko duen formula kontsultatzea(lizentziatuak, graduatuak etab.)
- 4.artikuluari dagokionez, behin egokitua izan denean alderatu PedaPro proiektuaren sorreran burutu genuen haserako lan dokumentuan agertzen ziren helburuekin.
- Itzultzaile zerbitzu posibleak aurkitu bukaerako dokumentuaren itzulpenerako.

KOMUNIKAZIO TALDEA

- “Asociación Profesional Iniciativa Colegial de Pedagogos” taldearekin harremanetan jartzea, azken finean gure proiekturako beraien estatutuak eredu gisan erabili ditugula jakinaren gainean jartzeko.



- Euskal Herrian psikopedagogoen elkarteak existitzen dela aipatzen dugu. Konpetentzien talka gerta daitekeela baloratzen dugu, eta nahiz eta ondorioztatzen dugun hori ez dela horrela, izan ere, Elkarte bakoitza nahi duen bezala eratu daitekeen eta bazkide izan nahi duen pertsonak aukeratu dezakeen zein elkarteetan partehartu nahi duen, “komunikatu ofiziala” prestatzea erabaki dugu, behin momentua iristean egokienak eta beharrezkoak uste ditugun Elkarteetara bidaliko duguna.
- Lan taldeetan barne komunikazio kaxkarra daukagula uste dugu eta honi irtenbidea emate arren barne komunikazio estrategia zehaztu eta partehartzaileei iristeko lan egingo dugu. Bide honetan, lan jardunaldi espezifikoak burutuko dugu.

ZERBITZUEN TALDEA

- Datorren ostegunean, martxoak 20, UPV/EHUK utzi digun lokaleko giltzak jasotzera joan. Horretarako, barne dokumentu bat sinatu beharko da, sinatzera joango direnak:: Mertxe Gordillo y Nerea Fernández.
- Aurreko puntuan aipatutako giltza eta lokalaren barne erabilpenerako zein unibertsitatea jakinaren gainean egoteko, jarraibide batzuk sortzea Giltzak Mertzek edukiko ditu, gehienbat Mertzaren lan tokia fakultatetik gertu dagoelako.
- 7. Artikuluari dagokionez, tituluen harrera zein ziurtatze prozesua sortzea estatutuetan bildutakoa oinarri hartuta. Jarraibide horietan laukitxoak egongo dira LOPD egokitutakoak eta gure sare sozialetan irudien erabilpenerako beharrezkoa den baimena ere bilduko da .
- Bazkideen kuotentzat barne arautegia definitu eta sortu .

Hurrengo bilerak:

- Hurrengo bilera eguna zehaztu gabe dago. Eguna taldeek euren lanak burutzen dijoazten heinean zehaztuko da.